



BBUP-K KUDEATZEN DITUEN UDALERRIETAKO HORNIDURA SAREETAKO MATXUREN MANTENTZE LANAK ETA KUDEAKETAK EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3237

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Gorka Robredo Arzuaga
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xedea da BBUPk kudeatzen dituen udalerrietako (geografikoki lau eremu edo lotetan banatuta) hornidura-sareak ustiatzea, jarioak murriztea, mantentze-lanak egitea eta matxurak kudeatzea.

2.- Bete beharreko premiak: BBUPk hitzarmenak ditu sinatuta 89 udalerrian edateko ura banatzeko udal-sarea kudeatu, mantendu eta ustiatzeko. Udalerri horietatik, hamalau bertako langileek kudeatzen dituzte, eta gainerakoek bitarteko tekniko osagarriak behar dituzte, zeinak kanpotik eskuratu behar baitira, kontratu bidez, BBUPren antolamenduaren eta langileen ezaugarriak direla-eta. Hala, kontratuak erantzun nahi die agertoki geografiko hauek mantentze-lanak egiteko eta ustiatzeko dituzten beharrei: 22 udalerriko A LOTE/EREMUA, 15 udalerriko B LOTE/EREMUA, 23 udalerriko C LOTE/EREMUA eta 15 udalerriko D LOTE/EREMUA.

3.-Lotetan banatzea: ☒ Bai ☐ Ez

Lotearen deskribapena eta zenbatekoa:

A LOTE: Bakio, Barrika, Berango, Derio, Erandio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gorniz, Larrabetzu, Laukiz, Leioa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Maruri-Jatabe, Morga, Mungia, Plentzia, Sondika, Sopela, eta Urduliz.

- ZENBATEKOA: 4.116.010,92 €

B LOTE: Abanto, Alonsotegi, Balmaseda, Gordexola, Gueñes, Ortuella, Santurtzi, Trapaga, Zalla, Galdames, Sopuerta, Turtzioz, Muskiz, Sestao eta Zierbena.

- ZENBATEKOA: 4.195.489,98 €



B.- KONTRATUAREN XEDEA

C LOTEA: Arantzazu, Areatza, Arrigorriaga, Artea, Atxondo, Bedia, Dima, Elorrio, Etxebarri, Galdakao, Igorre, Iurreta, Izurtza, Lemoa, Mañaria, Urduña, Ubide, Ugao-Miraballes, Usansolo, Zaldibar, Zaratamo, Zeanuri, Zeberio.

- ZENBATEKOA: 3.143.825,99 €

D LOTEA: Amoroto, Aulesti, Ereño, Etxebarria, Gernika, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Muxika, Nabarniz, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar.

- ZENBATEKOA: 2.338.439,99 €

Parte hartzeko/adjudikatzeko muga:

- 1. lotea (A eremuko udalerriak): 4.116.010,92 €
- 2. lotea (B eremuko udalerriak): 4.195.489,98 €
- 3. lotea (C eremuko udalerriak): 3.143.825,99 €
- 4. lotea (D eremuko udalerriak): 2.338.439,99 €

Lizitatzailleek lau lotetarako eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte.

Lizitatzaille bakoitzari lote bakarra esleitu ahalko zaio, bai banaka bai aldi baterako enpresa-elkarte baten baitan.

Lehenik eta behin, 1. lotea ebaluatuko da; bigarrenik, 2. lotea; hirugarrenik, 3. lotea eta, azkenik, 4. lotea.

Izan ere, 1. lotean lehenengo postua lortzen duen lizitatzailleak ezingo du 2., 3. eta 4. loteetako lehenengo postua eskuratu. Hala ere, proposamen ekonomikoa kontuan hartuko da eskaintzen sailkapena zehazteko, baita batez besteko baja kalkulatzeko ere. Era berean jardungo da 2. eta 3. loteetako lehen sailkatuarekin.

Muga hori ez da aplikatuko 2., 3. edo 4. sortetako batean lizitatzaille bakarra edo baliozko eskaintza bakarra badago. Kasu horretan, sorten adjudikaziodunak bat etor daitezke lizitatzaille bakarra edo baliozko eskaintza bakarra dagoen sortari dagokionez.

Lizitatzailleak adjudikazioari uko eginez gero, lau loteen eskaintzari berariaz uko egitea ekarriko du, bai banaka bai aldi baterako enpresa-elkarte bateko kide gisa.

4.- CPV: 65130000-3 Ur-horniduraren ustiapena

5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI ☒ EZ

6.- Izaera juridikoa: Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

HAMAHIRU MILIOI ZAZPIEHUN ETA
LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN
ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA
LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO
(13.793.766,88 €), BEZik GABE.

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 37.932.858,92 €

Loteak: ☒ BAI ☐ EZ



C.-KONTRATUAREN PREZIOA

- Loteen kalkulaturako balioa:

- 1. lotea (A eremuko udalerriak): 11.319.030,03 €
- 2. lotea (B eremuko udalerriak): 11.537.597,45 €
- 3. lotea (C eremuko udalerriak): 8.645.521,47 €
- 4. lotea (D eremuko udalerriak): 6.430.709,97 €

Balio zenbatetsiak barne hartzen du gauzatu beharreko ale-kopurua handitzea, kontratuaren prezioaren % 10eraino, SPKLren 309. artikuluan ezarritakoaren arabera, zeina ez baita aldaketatzat hartuko.

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak

4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 227.99.161.00.

- 2026. urtea: 2.873.701,43 €
- 2027. urtea: 6.896.883,44 €
- 2028. urtea: 4.023.182,00 €

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI ☒ Ez

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.-Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.

8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.-Guztizko iraupena: BI (2) URTE

2.-Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.-Luzapena

☒ BAI ☐ EZ URTE BATEKO (1) HIRU (3) luzapen

4.-Berme-epea: URTE (1) BAT.

5.-Kontratua betetzeko tokia: Partzuergoaren barneko udalerriak

6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin:

- 1. lotea (A eremuko udalerriak): 2.058.005,46 €
- 2. lotea (B eremuko udalerriak): 2.097.744,99 €



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

- 3. lotea (C eremuko udalerriak): 1.571.913,00 €
- 4. lotea (D eremuko udalerriak): 1.169.220,00 €

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda, kontratuaren xede direnen berberak edo antzekoak, egikaritze onaren ziurtagirien bidez abalatuta. Halaber, gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko kopuruaren % 70 edo gehiago izan beharko da.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai, hautazkoa ☐ Ez

Taldea, azpitaldea eta kategoria: Ur-sareak eta estolderia kontserbatzeko, mantentzeko eta ustiatzeko zerbitzuak

- Taldea: O
- Azpitaldea: 3
- Kategoria: 5

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

a) Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia.

Atxikitako ekipoen antolaketaren deskribapen justifikatua eta bateragarria, horien banaketa, espezialitateen arabera arduraldia, lan-motak, etab. Ekipoen eremu-banaketen deskribapen zehatza, kontratuaren esku jarritako zentro logistikoak.

Hauen deskribapen zehatza, soluzio tekniko eta materialak eta hornitzaileak adierazita: sare-lanak, hartuneak, sare-konexioak, ur-mozketak eta polietileno-zko zein burdinurtuko hodietako konponketak gauzatze metodoa.

Hauek optimizatzeko proposatutako hobekuntzen eta ekimenen deskribapena: zerbitzuaren adierazle nagusiak, erantzun-denborak, erregistratu gabeko ura, konponketa-akaberak, prebentziozko mantentze-lanak eta ibilgailuen mantentze-lanak.

b) Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak

Makinak, kontratuaren eskura jartzea aurreikusten diren bitarteko osagarriak eta horien erabateko erabilgarritasuna kontratuaren eremu geografikoan, kokapena, erabilgarritasun-denbora, eta beste baliabide batzuk erabiltzeko posibilitatea lan handiko uneetan.

Kontraturako beharrezkoak diren piezen eta materialaren eskuragarritasuna, fabrikatzailea eta modeloa. Ezinbestekoa da 1. eranskineko taulan fabrikatzailea eta material guztien modeloa adieraztea. Pieza ohikoenen gutxi gorabeherako inbentarioa eta eskuragarritasuna.



BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

c) Ingurumen-irizpideak

Pleguaren xede diren lanak egitean ingurumen-arloan hartu beharreko neurriak adieraztea eta deskribatzea, bereziki atmosferan izango duen inpaktuarekin, ukitutako lurzoruan izango duen inpaktuarekin eta obraren ingurunekeko landaredian izango duen inpaktuarekin lotutakoak. Arlo horretako akreditazioak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da **administrazio-baldintza berezien pleguaren I. eranskineko** ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Kontratistak ESKAINTZA deritzon orrian, "Prezioa" zutabean, A, B, C edo D LOTEA eranskinean jasotako orria osatuko du, eta prezio unitarioa eskainiko du kontzeptu bakoitzeko. "Neurketa" apartatukoekin biderkatuta, betearazpenaren aurrekontu partzialak edo kontzeptu bakoitzeko aurrekontu osoak lortuko dira. Betearazpenaren aurrekontu partzialen baturak osatuko du eskaintza ekonomikoa.

Kontratuaren unitateak eta urteko (12 hilabete) neurketak 1. eranskin honetan aurkezten dira.

Kontzeptu bakoitzerako eskaintako prezioei baja eman ahalko zaie, baina ezingo dira erreferentziatzat emandakoak baino handiagoak izan.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidente:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekorekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - B_M - B_{\max})}{(B_{\max} - B_M)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

- **Egikaritzearen memoria teknikoa eta metodologia 30 puntu.**

- Atxikitako ekipoen antolaketaren deskribapen justifikatua eta bateragarria, horien banaketa, espezialitateen araberrako arduraldia, lan-motak, etab. Ekipoen eremu-banaketen deskribapen zehatza, kontratuaren esku jarritako zentro logistikoak. (10 puntu).
- Hauen deskribapen zehatza, soluzio tekniko eta materialak eta hornitzaileak adierazita: sare-lanak, hartuneak, sare-konexioak, ur-mozketak eta polietilenoazko zein burdinurtuko hodianak konponketak gauzatzeko metodologia. (10 puntu)
- Hauek optimizatzeko proposatutako hobekuntzen eta ekimenen deskribapena: zerbitzuaren adierazle nagusiak, erantzun-denborak, erregistratu gabeko ura, konponketa-akaberak, prebentziozko mantentze-lanak eta ibilgailuen mantentze-lanak. (10 puntu).

- **Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak 16 puntu.**

- Makinak, kontratuaren eskura jartzea aurreikusten diren bitarteko osagarriak eta horien erabateko erabilgarritasuna kontratuaren eremu geografikoan, kokapena, erabilgarritasun-denbora, eta beste baliabide batzuk erabiltzeko posibilitatea lan handiko uneetan. (8 puntu).
- Kontraturako beharrezkoak diren piezen eta materialaren eskuragarritasuna, fabrikatzailea eta modelo. Ezinbestekoa da 1. eranskinetako taulan fabrikatzailea eta kontratuaren esku jartzen diren material guztien modeloak betetzea. Pieza ohikoenen gutxi gorabeherako inbentarioa eta eskuragarritasuna. (8 puntu).

- **Ingurumen-irizpideak: 4 puntu.**

- Pleguaren xede diren lanak egitean ingurumen-arloan hartu beharreko neurriak adieraztea eta deskribatzea, bereziki atmosferan izango duen inpaktuarekin, ukitutako lurzoruan izango duen inpaktuarekin eta obraren ingurunean landaredian izango duen inpaktuarekin lotutakoak. Arlo horretako akreditazioak. (4 puntu)

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerak daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarrik izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezkoa den gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoiak izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

BAI



Lizitazio honen xede den kontratua segidako traktuko espedientea da, eta, gaur egun, hari atxikita dago subrogazio-eskubidearekin kontratatutako lantalde oso bat.

Administrazio-baldintza berezien pleguaren eranskinean, A eremuko udalerrien kontratuari erantsiko zaizkion langile-zerrenda erantsi dugu: 1. LOTEA, B Eremua: 2. LOTEA, C Eremua: 3. LOTEA eta 4. LOTEKO D Eremua:

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak obra honetara atxiki beharko du ordezkari bat, eta kontratistaren izenean jarduteko edo berau ordezkatzeko behar besteko ahala izan beharko du kontratu-harreman guztian.